

# Bero-beroan

## Birminghamen euskara irakurle plaza

**BIRMINGHAMEKO** Unibertsitateak euskararen eta gaztelaniaren irakurle lanpostua eskaini du. Irakasleak Filologia Hispanikoko Sailean euskarazko eta gaztelaniazko eskolak eman beharko ditu. Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean ari da Birminghameko eta izena emateko hara deitu behar da. Eskola emateak irailan hasiko lirateke eta curriculumak uztailaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira EHUen.

## Ueman bost udalerrri

**AZPEITIAN**, joan den igandean ospatu zuten Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen Eguna eta bost udalerrri berriak aurkeztu zituzten, alegia, Azpeitia, Areso, Otxandio, Mallabia eta Atxondo.

## Iragarkilaburrak.com

BAHEA

**EKTko** Bertako Hedabideak SL-ren proiektua da, iragarki laburrak euskaraz biltzen dituen ataria. Paperean ere argitaratuko dutela adierazi dute proiektuaren sustatzaileek. Paperekoak Euskal Herri osoan banatuko dituzte asteen behin, *Berria* egunkariarekin, *Hitzza* egunkariarekin eta baita *Barren*, *Guaixe* eta *Txintxarri*ekin ere.

## Euskaltzaindiaren Nazioarteko Biltzarra

**XVI. BILTZARRA** Iruñean izango da urriaren 6tik 10era. *Pirinioetako hizkuntzak*: *lebena eta oraina* izenburupeko biltzarrerako, besteak beste ondoko gaietat txostenak aurkez daitezke: Euskararen Historia eta Historiaurrea, Euskal Dialektologia eta Onomastika. Txostenak bidaltzeko epea uztailaren 17an amaituko da

Euskara 21 webgunean Barandiaran izeneko batek egindako hausnarketa: “Txostenean [HPSek prestatutakoa] zera esaten da: ‘poetak aipatu zuen harako euskara noranahiko hura biziberritu egin da urteotan, eta are noranahikoago izatera iritsi da, ez bairik gabe’.

Lizardik noranahikoa nahi zuen euskara, eta, urteekin, egia da euskara ideia horretara hurbiltzen hasi dela. Orain, etxetik eta meza-zulotik beste leku askotara zabaldu da euskara: komunikabideak, unibertsitatea, administrazioa... (...) Zalantzak pizten dizkit noranahikotasun horrek. Nolabaiteko fartsa bat baitago horren atzetik. (...) Eremu askotara heldu gara, baina azaletik. Eta, aldiz, lehen euskarak berezko zituen eremuak galduz goaz pixkana; bereziki, kalea. (...) Bestalde, sentsazioa daukat diru eta ahalegin handiak bideratu direla euskararen presentzia noranahiko hori bermatzera, baina horretan geratu da, presentzia hutsean. Erabilerak kale egin du. Eta erabilerarik gabe, akabo. Horregatik, eta etorkizun global eta eleanitzari erreparatuz, nago ez ote den antzua izan ahalegin guttia. Agian, hobe zuen euskarak noranahiko ez eta etxeko izaten jarraitzea. Izaten jarraituko badu. Zein da, bada, euskararen bertutea munduari begira? Ezin da lehiakorra izan ingelese, gaztelera edota txinerarekin. Beraz, zein da euskaraz eskain dezakeen berezitasuna? Buelta eman behar diogu diskurtsoari: euskara maite badugu ez da, hain justu, noranahikoa delako, etxean bezala sentiarazten gaituelako baizik. Txillidak Pío Barojari eskainitako hitz batzuk ekarri nahi nituzke akordura: *Querido Pío, ciudadano del mundo desde la montaña*. Euskara da gure mendia, baina ez munduko hiritar egingo gaituena. Horregatik maite dut nik, beintzat euskara”.

## TALAIAN

### Euskal Herria eraikitzen

Euskal Herriak, gure herriak, barne eta kanpo mugez banatua jarraitzen du. Banaketa politiko, administratibo zein ekonomikoa. Ikuspegi administratibotik begiratuta Euskal Herria ondoko administrazioetan banatzen da: europarrean, espainiarrean, frantziarrean eta autonomietakoan (EAE eta Nafarroakoan). Ondorioz, egindako analisi eta ikerketak administrazio horietako bakoitzak bizi duenaren isla dira gehienetan eta herrialdeko errealitate sozio-ekonomikoa, beste errealitate batzuk bezala, bakoitzaren ikuspegitik analizatzen da. Beraz desitxuratu egiten da errealitatea, Euskal Herria lausotua eta banatua erakutsiz. Hori aldatzeko beharrezkoa da, beste ezer baino lehen, gure herrialdearen errealitate nazionalaren jakitun izan eta Euskal Herri oso, bakar eta erabatekoa eraikitzeko lan egitea. Egia esan, ez dago lan horretarako egitura askorik, administrazio bakoitzak bere lurralderako baino ez baitu egiten lan.

Badago, ordea, horretan lan egiteko konpromisoa hartu duen euskal erakunde gaztea: euskal behategi sozio-ekonomikoa edo Gaindegia. Azken egunotan aurkeztu ditu, hain zuzen ere, Euskal Herriko sozio-ekonomiako 22 adierazle nagusiak. Euskal Herri osoarenak. Bost arlotan bildu ditu: ingurune ekonomiko orokorra, enplegua, berrikuntza eta ikerkuntza, ekonomiaren erreforma eta gizarte kohesioa eta ekonomiaren erreforma. Euskal Herriko egoera sozio-ekonomiko erreala ezagutarazten hasteko modua da. Eta hori ere Euskal Herria eraikitzea da. Horrela lan egiten dutenek euskal gizarte osoaren babesa merezi dute.

Juan Mari Arregi